



Barrualdeko Bidea

Europatik etorritako erromesek Irundik, Bidasoa ibaiaren bokaletik abiatuta ematen zizituzten beren lehenengo pausoak penintsulan. Bazekiten Gipuzkoaren barrualderantz egingo zuten ibilbidea penintsulako iparraldearen komunikazio-ardatz nagusietako bat zela erromatarren garaitik, Santuarekin zerikusia zuten konnotazioak alde batera utzita. Baliteke ibilbide azkarrena ez izatea, baina segurua eta jendetsua zen, ondo hornituta zegoen eta, garrantzizko akzidente geografikoren bat edo beste izan ezik, hil latzenetan ere nahiko eroso zen.

Gaur egun, Gipuzkoa eta Araba zeharkatzen dituen "Barrualdeko Bidea" Euskal Herria ondoen islatzen duena da beharbada. Izan ere, kontraste handiko ibilbidea da, apenas sei egunetan herrialde heterogeneo eta anitz hau ezagutzeko aukerakoa. Kostaldeko paisaiak, baso hezeak, baratz emankorrak, lehorreko lurrak, lautada amaigabeak, industria ugari dituzten herriak, landa-paisaiak, eskualde euskaldunak, euskara duela mende asko galdu zuten eskualdeak... Aniztasun geografiko, historiko, sozio-ekonomiko eta kultural izugarria, beraz, 200 kilometro eskasetan.

Kristau-elkartea Apostoluari ohore egiten eta Santiagora erromes joaten hasi baino askoz ere lehenago, erromatarren galtzada zahar baten arrastoek eta antzinako larratze-bideen aztarnak ibilbide honek berebiziko garrantzia zuela erakusten digute. XIII. mendean Gipuzkoa Gaztelara elkartu zenean, Jakitun izenez ezaguna zen Alfontso X.ak, bere jakituriari sen praktikoa nabarmena gehitu zion monarka gaztelauak, hiribildu gotortuak sortu zituen bide honetan zehar merkataritzarako ibilbide garrantzitsu bat baldintza onenetan mantentzeko, eta zirkunstantzia horiek gero eta garrantzi handiagoa eman zioten bideari. Baina bidea mantentzeko asmo handiko planek ere ezin izan zieten saihestu erromesei San Adriango tunelerainoko igoera, tarte motza baina bihurra eta Arabako lautadetako bide erosoagoetara iritsi aurreko azken proba, alegia.

Bidaiari batzuen testigantzen arabera ez dago zalantzarik. Baliteke Manierrek exageratu izana 1730eko "Voyage a St. Jacques de Compostelle" bere lanean San Adrian "munduko mendi altuenetako bat" zela zioenean, baina arrokan zulatutako pasabide honek bidaiariak erabat harrিতa uzten zituela, horretan ez dago zalantzarik.

Duela bi mendeko protagonismoa galdu arren, ibilbide honek berde eta urre koloreko bide interesgarria izaten jarraitzen du, Gipuzkoako ibarrek eta Arabako lautadek bezalaxe, eta bertako aniztasunak, banandu beharrean, ibiltaria aberasten du.



ETAPA

1

IRUN HERNANI

(26,2 km)

IRUN

Iruni buruzko idatzizko lehenengo aipamena, Gaztelako Alfontso VIII. erregeak 1203 urtean Hondarribiari emandako "hiri gutun"-ean aurkitzen da. Ama Xantalen ermita, gurpen gunea izan da hogei mendetan zehar eta bertan aztarna arkeologikoak aurkitu dituzte. Hirigunearen ondoan kokatuta, aipagarriena I. mendeko tenplu erromanikoa eta ermita azpian dagoen errausketarako erabiltzen zen nekropoli erromatarra da. X. mendean eraikitako Gipuzkoako eliz bakarra da. Gaur egungo ermitak, ziurrenik XIV. mendekoa, oinplano laukizuzena eta isabeldar estiloko aurrealdea du. Barru aldea museo bilakatu dute eta aurkitutako aztarna arkeologikoen zati bat bisitatu daiteke.

Junkaleko Andre Mariaren eliza, XVII. mendean hasi zuten eraikitzen eta 1606. urtean amaitu zen. Gotikoko azken garaiko estiloak eta "gotiko euskaldunaren" bereizgarriak dauzka XVI. mendeko aurrealde barrokoa dauka eta bertan Junkal Birjinaren irudia duen oholdza bat dago: XII. mendeko bigarren zatiko tailu erromanikoa da, ziurrenik Gipuzkoan dagoen zaharrena. Beste eraikin aipagarri batzuk ere badaude: 1763. urtean inauguratutako **Udaletxea**, **Arbelaitz Jauregia**, **Urdanibia Jauregia** edo **San Martzial ermita**.

OIARTZUN

Herrian paleolitikoko haitzuloak eta Metal Aroko hilobi-monumentuak kontserbatzen dira

Gure aroko **Arditurriko mehatzeak**, erromatarren presentziaren adierazgarria dira. Mehatze gunek honek aktibitate siderurgikoa bultzatu zuen Erdi Arotik aurrera. Bidegurutzea hau, XV. mendera arte Erreterriaren mende egon zen. Oiartzungo bailarako olagizonen ordenamendu juridiko propioa izatera iritsi ziren, 1328. urtean Alfontso XI.ak Emandako Burdinolen Foruaren bitartez.

XVI. mendean eraikitako **San Esteban parroikia-elizak**, estilo gotikoa du eta XVII. Mendeko oholdza dauka.

Elizalde plazan **Udaletxea** kokatzen da eta ondoan XVI. mendeko **San Juan eliza** aurkitzen da. XVII. mendeko oholdza bat eta itxura gotikoa duen Kristoa daude bertan. Iturriotz auzoan, izen berbera duen dorrea aipatu daiteke. Hau eraikuntza sendoa duen eraikin laukizuzena da. Ergoien auzoan **Pagoaga dorrea** aurkitzen da.

ASTIGARRAGA

Irunetik Gaztelara eramaten zuen **errege-bide** ondoan kokatzen da. Bere hastapenak Burdin Aroan kokatzen dira eta garai horretako ezaugarri honena izen bereberko lekuan kokatuta dagoen **Txoritokietako**

iruinarria da. XIII. Mendeko **Jasokunde Andre Mariaren parrokiak**, ondoren eraberritutakoak, gurutze latindarraren oinplanoa eta gurutzeria-ganga estalkia ditu. Parrokiatik gertu **Murgia jauregia** aurkitzen da, lehen dorre bat zen eta 1512. urtean suntsitua, eta ondoren berreraikia izan zen. Gerra Karlistetan kuartel eta ospitale funtzioak bete zituen. Muino txiki baten gailurrean **Santiagomendi ermita** kokatzen da. Bertan aurkitu zuten Santiagoren alabastro tailuaren bereizgarrietatik, Erdi Aroan eraikia izan zela uste da. 1950. urtean eraberritua, mantendu zen bakarra oholdza izan zen. Tradizio handia dauka eta Gipuzkoa zeharkatzen duten Santiagoko bideen oinarriko zatitza hartzen da. Izen berbera duen auzoan kokatuta, **Ergobia zubiak** XVIII. Mendean errege-bidea zeharkatzen zuen ibia ordezkatu zuen. Urumea ibaiean eraiki zen harrizko lehen zubia izan zen.



Iturriotz Dorrea (Oiartzun)




Santiagomendi Ermita (Astigarraga)



Junkaleko Andre Mariaren Eliza (Irun)



Aiako Harriaren bihotzean dauden Arditurri (Oiartzun) meatzak 2.000 urte baino gehiagotan ustiatuak izan ziren.



BTT Txirrindulariak

Irunetik Oiartzunera ibilbidea egitea posible da. Asfaltoa nahiago duenek GI-2134a hartu beharko dute. Oiartzunetik Ventas de Astigarragara joateko, onena GI-2132 hartu eta Frantzesillaga baserrian oinezkoentzako bidearekin lotzea da. Santiagoomendira porlanezko bide batetatik igotzen da eta Astigarragara errepide batetatik jaisten da.

(km 0)

(km 0) Santiago Zubia

Bidasoa ibai gainean dagoen Santiago zubitik abiatuko gara, Erakustazoka ondoan Santiago kalera eramango gaituen Real Unión pasealekua hartuko dugu. Bertatik Junkaleko Andre Mariaren elizara abiatuko gara. Azkenik Udaletxe parean kokatzen den San Juan Harria plazaraino igoko gara. Leku honetara Behobiatik ere irits daiteke.

(km 1,5) Irun

Kolon Pasealekutik jarraituko dugu, Hondarribia, Kostako Bidearekin lotzen duen lekutik hain zuzen ere. Etapa honek Irun zeharkatzen du Landetxa-Ventas auzora iritsi arte. Pelegrin aterpea baino pixka bat lehenago Beliz kaletik igoko gara eta autobide gainean dagoen zubia zeharkatuko dugu, ondoren eskumatara dagoen eta behera egiten duen desbideratze bat hartuko dugu. Altxubide baserria pasatu eta gero, ubide baten ondotik hurrengo bidegurutzeraino ibili eta ubidea ezker aldetik ibituko dugu. Baserri bateraino jarraitu dugu eta bertan GI-3451raino eramango gaituen bide bat hartuko dugu, bertatik hurrengo bidegurutzeraino ibiliko gara. Porlanezko bidetik gailur batetara igoko gara, bertan lau bidetik bidegurutze bat dago, hortik zuzen jarraituz Gurutze auzoaren altuerara dagoen GI-3451an amaituko dugu.

(km 8,6) Gurutze (Oiartzun)

Oiartzunera jarraituko dugu, 100 metrotara behera egiten duen eta ibaitxo bat zeharkatzen duen eskuma aldean dagoen desbideratze bat hartuko dugu. Ondoren aldapa hasten da eta bertatik porlanezko bide batetara iritsiko gara. Aldatz behera nabarmen baten ondoren Elizaldera iritsiko gara, Oiartzungo hirigunera hain zuzen ere.

(km 10,8) Elizalde (Oiartzun)

Donibane kaletik plazara iritsiko gara eta Manuel Lekuona kaletik Iturriotz auzoraino jaitsiko gara. Kale nagusia zeharkatu ondoren eskuineko bidea hartuko dugu. Behin goian gaudela behera egiten duen desbideratze batek ibaitxo batetara eramango gaitu. Bidezidor batetatik baserri batetara iritsiko gara eta ezkerrean dagoen desbideratze bat hartu ondoren muino batetara iritsiko gara. Sagastiaren ondotik doan bidetik jaitsiko gara, pinudi bat zeharkatu eta Sorozarreta baserria atzean utzi eta gero gure seinaleak jarraituko ditugu aldapa behera sakon batekin topatu arte. Oiartzabal baserritik 100 metrotara, ezkerreko bidea hartuko dugu, pinudi baten eta ondoren harizti baten barrena sartzeko. Hemendik gure seinaleak jarraituko ditugu, goi-tentsioko dorre batetara iristen den bidezidor batekin topo egin arte. Bertan norabidea aldatzen badugu, jaitsiera hasten da. Berriz igoeran, Frantzesillagaberri baserri ondotik igaroko gara azkenik Ventas de Astigarragako errepidera iritsi arte.

(km 17,9) Frantzesillaga

Idien probalekuan, Manesenea baserria dioan bidezidorra hartuko dugu. Imiako gailurra inguratuko dugu eta metro gutxi batzuk aurrerago porlanezko bidera bueltatuko gara. Ondoren berriz irtingo gara porlanezko bidetik Santiagoomendi ermitara igotzeko. Santiagoomendi mendixka baten gailurrean kokatzen den Donejakueko erreferentzia garrantzitsua da.


(km 20,3) Santiagoomendi

Aparkalekuraino jaitsi eta ezkerretara, ondoan dagoen mendixkako errepikagailura daraman bide estua hartuko dugu. Bertan jaitsiera hasten da. Porlanezko bide batetatik Artola eta Arraspiñe baserrietara iritsiko gara, bertan bidezidor bat iristen da. Agustinen komentua pasa eta gero Argiñetako bidera jaitsi Santio Zaharra bidean bukatu arte. Bide honek Astigarragara eramango gaitu.

(km 22,9) Astigarraga

Leku honetan Donostiara eramaten duen lotura har daiteke Kostaldeko Bidearekin konektatzeko. Barnealdeko Bideak, Hernani-Donostia trenbide zaharraren ibilbidetik jarraitzen du Oialumeko bideraino. Bertan eskumatara biratu eta Ergobia auzoa eta Urumea ibaia zeharkatuko ditugu. Zubigain pasealekutik, industrialde batetara jarraituko dugu. Bertan trenbide azpitik pasatuz Florida auzora iritsiko gara. Zinkoenea plazaraino igo eta behin hirigune barruan gaudela, Astigarragako udaletxera iritsiko gara.

(km 26,2) Hernani



(km 26,2)



ETAPA 2A HERNANI TOLOSA

(19,3 km)



Oria Bailarako bidea

HERNANI

Ez da data ezagutzen baina uste da XIII. mendearen hasieran bazuela hiribildu titulua. Hirigunean, plazaren ondoan **San Juan Bautista eliza** aurkitzen da. XVI. mendearen erdialdekoa da eta eskualdeko zaharrenetarikoa da. Aipagarria da XVIII. mende hasierako aurrealde barrokoa. Gurutze latindar oinplanoa eta nabe bakarra ditu. Aldare nagusian sagrarioa eta XVI. mendeko Pietate bat daude. Gaur egungo **Udaletxea** XIX. mende bukaerakoa da eta estilo eklektikoa du. Eraikuntza berregin zuten II. Gerra Karlistan, 1875. urte inguruan suntsitu egin baitzuten. Sei arku dituen aurrealdea eta hiribildutik irteteko duen pasabidea nabarmen dira. Hau lehenago herria babesten zuen ate nagusiaren oinordekoa da. Erdi Aroko harresitik arku zorrotzdun ate bat kontserbatzen da. **San Agustin komentuak** aurrealde erromaniko-gotiko interesgarria du, hau Hernaniko hasierako elizan zegoena da. Leokako ikuztegi eta iturri publikoak, estilo neoklasikodunak, tradizio handia dute.

URNIETA

San Migel elizak XVI. mendeko aurrealde gotikoa eta gargola bitxi batzuk ditu. **Santa Leocadia ermitak**, arkupe txiki batekin, aterpe funtzioa egin zezaken errege-bidetik zihozan bidaiarientzat. **Konseju Zahar**, udaletxea eraiki

baino lehenago kontzejua biltzen zen egoitza da. Eraikinaren bereizgarriak, aurrealdeko balkoi luzea eta kanpoko eskailerak dira. Hirigunetik kanpo **Zaldundegi** eta **Posta** bezalako eraikin interesgarriak kokatzen dira. Hauek errege-bideak izan duen garrantziaren lekuko dira.

ANDOAIN

Burdin Aroko gastero baten erretoak eta beste lekukotasun batzuk, historiaurreko artzain komunitateak egon zirela egiaztatzen dute. 1614. urtean hiribildu titulua erosi zuen. **Tourseko San Martin eliza** 1759. urtean hasi zuten eraikitzen. Estilo barrokoa, arkupe perimetrala, gurutze latindar oinplanoa eta gurutze-gangak ditu. Oria eta Leitzaran ibaiak elkartzen diren lekuan **Santa Kurtz baseliza** dago. Aldarean Kristo gotiko bat da nagusi. Hirigune historikoan **Urigain jauregia**, **Berrozpe dorretxea**, gaur egun komentua dena eta **Izturitzagatorrea** daude, azken hau XVI. mendeko eraikuntza zoragarria da. Muino batean, XVI. mendeko Jasokundeko Andre Mariaren eliza inguruan Aduana herri txikia kokatzen da. Oria ibaira jaisten, bide ertzean **Santa Gurutze ermita** kokatzen da.

BILLABONA

Herria XIV. mende hasieran sortu zen errege-bidea indartzeko baina 1615. urtera arte ez zuen hiribildu titulurik eduki.

Billabonako eliza, Bihotz Sakratuaren izenpean egin zuten eta nahiko berria da, XX. mende hasieran eraiki baitzuten. Oria ibai gainean dagoen **Zubimusu zubia** herriaren sorreran ezinbestekoa izan zen, errege-bidea Gaztela eta kostaldeko bideekin lotzen zuen lekua baitzen.

AMASA

Bailarako leku altu batean kokatzen da. Erdi Arotik dago informazioa Amasari buruz eta 1919. urtetik Billabonara lotuta egon da. **Tourseko San Martin eliza**, Amasan. XVI eta XVII. mendeetan eraiki zen. Nabe bakarra zuen hasieran. Orain, gurutze latindar oinplanoa eta estilo gotikoa duten bi leiho polit ditu absidean. Hortik gertu Gurutze Santuaren ermita dago.

ANOETA

1615. urtetik hiribildua da. XVI. mendekoa den eta XVII eta XVIII. mendeetan eraberritua izan zen **San Juan Bautista eliza** aipagarria da.



Santa Leocadia Ermita (Urnieta)



Tourseko San Martin Eliza (Amasa)




Leokako Ikuztegia (Hernani)



Tourseko San Martin Eliza (Andoain)



Andoainen, sorginen zubiak
Leitzarar ibaiaren gurutzatzen du.



BTT Txirrindulariak

Etapa guztia bizikletentzako bideragarria da.

(km 26,2)



(km 45,5)

(km 0) Hernani

Hirigune historikoa atzean utziko dugu udaletxeko arku zeharkatu eta Santa Krutz gurutzokira abiatuko gara. Trenbide azpitik pasako gara Portu auzora iristeko. Hau lehenago, ibaiko portua zen. Ubidearen beste aldera pasatu bezain laster eskumatar biratuko gara. Bertan bi baserriren artetik pasatuko gara eta ondoren bariantearren azpitik. Trenbidearen ezker aldetik Igarategi industrialdera iritsi arte jarraituko dugu. Hemendik Urnietako hirigunear sartuko gara.

(km 2,7) Urnieta

Ibilbidea zuzen jarraitzen du Erratzuneko industrialdetik. Bertatik, pasealeku batetatik irtengo gara ondoren Xoxokara dioan bidea Irurainen hartzeko. Eskumatar biratu eta berehala ezkerretara desbideratuko gara. Hemendik Leizotz industrialderaino jaitsiko gara. Industrialdea zeharkatu eta azken eraikuntzak pasatu eta gero ezkerretara hartuko dugu Plazaolako lehengo trenaren ibilbidera iritsi arte. Hemendik jarraituko dugu Andoaingo hirigunera iritsi arte. Gero udaletxea eta Tourseko San Martik elizara iritsi arte ibiliko gara.

(km 7,0) Andoain

Andoain zeharkatu eta Leitzarar ibaiaren gurutzatu eta gero, Oria ibaiaren bokalea baino metro batzuk lehenago, Santa Kurtz ermitara iritsiko gara. Andoainetik, Izturizagatorrea dorrearen aurretik pasatuta irtengo gara. Berehala Oria ibaiaren gurutzatu eta N-1 azpitik pasako gara GI-3610 errepidetik Billabonara jarraitzeko. Kilometro bat baino gutxiagora eskumatar egingo dugu Adunara eramaten duen bidea hartuz. Herri-bide batetatik Apakintza eta Artolaenea baserrien ondotik pasatuko gara. Aurrerago Galarraga baserri iritsiko gara, hemen Adunaren hirigunera joateko desbideraketa eskumatar utziko dugu. GI-3021 errepidea ikusi arte jaitsi eta ezkerretara zuzenduko gara Oria ibai gainean dagoen zubia gurutzatzeko. Horrela Billabonara iritsiko gara. Errotondan eskumatar biratuz eta trenbide azpitik herrian sartuko gara.

(km 12,4) Billabona

Zubiaurre kaletik jarraituko dugu eta Zubimusu zubitik Oria ibai zeharkatu bezain laster, ezkerretara joango gara Zizurkileko Ubera auzoan sartuz eta Zubiberri zubiraino joango gara. Hurrengo kilometroetan, ibilbidea trenbidearekiko paraleloa izango da, Oria ibaiko erriberako ortu eta zelaietatik. Trenbide pasagune baten ostean bi aldiz pasatuko gara trenbide azpitik Alkizara dioan, GI-3630 errepidera irten baino lehenago. San Juan kaleak Anoetako plazaraino eramango gaitu eta bertan Hernialdera igotzen den GI-3411 hartuko dugu. Hala ere, metro gutxi batzuetara ezkerretara dagoen desbideraketa bat hartuko dugu. Hemendik, trenbide azpitik gurutzatu eta gero GI-3650an agertuko gara. Eguneko azken zatiaren ibilbidea, Oria ibaiarekiko paraleloa den bide batetik doa. Hau jarraituta Tolosako Foruen Enparantzara iritsiko gara.

(km 19,3) Tolosa



ETAPA 2B HERNANI BIDANIA

(28,8 km)

Saiatz Bidea

HERNANI

Ez dakigu data zehatza, baina uste da XIII. Menderako bazuela hiribildu titulua. Hirigune historikoan, plaza ondoan, **San Juan Bautistaren eliza** aurkitzen da. XVI. mendearen erdi aldekoa, probintziako zaharrenetarikoa da. XVIII. mendeko aurrealde barrokoa du aipagarri. Gurutze latindar oinplanoa eta nabe bakarra dauka. Aldare nagusian sagrarioa eta XVI. mendeko Pietate bat nabarmentzen dira. Gaur egungo **Udaletxea** XIX. mende bukaerakoa da eta estilo eklektikoa du. Eraikuntza II. Gerra Karlistan berregin zuten, 1875. urte inguruan suntsitu egin baitzuten. Sei arku dituen aurrealdea eta hiribildutik irteteko duen pasabidea nabarmentzen dira. Hau, lehenago herria babesten zuen ate nagusiaren oinordekoa da. **San Agustin komentua** Hernaniko lehengo parrokiaren gainean eraiki zen eta honen XII. mendeko aurrealde erromaniko-gotikoa kontserbatzen du. **Leokako ikuztegi eta iturri publikoak** tradizio handia dute, ur natural iturburua delako eta antzina herria hornitzen zuen iturri nagusia zelako. **Santa Barbara gotorlekua**, 1874. urtean eraikia, muino baten gainean kokatzen da eta bertatik bailara eta bere inguruetakoa bista politez goza daiteke. Harresi barruan **Santa**

Barbara baserria dago. Aurrealdean arku zorrotz zoragarri bat dauka, seguruenik antzinako ermita batena izandakoa.

LASARTE-ORIA

Gaztea baina historia handia duen herria da, Erdi Aroan badago jadanik **Lasartetarren dorrearen** berri. **San Pedro eliza** 1569. urtean sortu zen. Eraikuntza xumea da, oinplano laukizuzena eta altuera desberdinak dituzten hiru nabe ditu. Bertara arkupe baten azpitik pasatuta sar daiteke. **Brigiden komentua** herriko puntu interesgarrienetako bat da. 1671. urtean sortu zen eta estilo barrokoa du. Oraindik ere mantentzen da bertako komunitate erlijiosoa.

ZUBIETA

Donostia eta Usurbil dagokio. Bertan **Santiagoko eliza** eta **Aizpurua, Aliri** eta **Berridi** bezalako **baserriek** osatzen duten ondare arkitektonikoa daude.

ZIZURKIL

Herriko puntu altuenean **Zarate ostatua** aurkitzen da. Lekua aipagarria da, artzaintza transhumantearen bideak bertatik pasatzen direlako eta mendiarekin komunikatzeko puntu estrategikoa delako.

AIA

Aia eta Asteasuko mugan, bidegurutze garrantzitsu batean, **Iturriotz ostatua** aurkitzen da, XVI. mendeko baserri ederra.

ERREZIL

Iturriotz baino metro batzuk geroago, Errezilen, **Iturriotzeko San Juan ermita** aurkitzen da. Ermita honetan, Saiatz mankomunitateko (Santiagoko bidearen izen berbera du) Batzarrak ospatzen ziren. Bidean gora igota, Zelatun muinora heltzen gara, bertako zelaietan, iraileko igande guztietan erromeriak ospatzeko ohitura dago. Erromes askok Ernioko gailurreraino jarraitzen dute igotzen gurutze-bide batetatik. Hau Gipuzkoako behatoki garrantzitsuenetako bat da.

BIDEGOIAN

1064. urtean, Bidania eta Goiatzen batasunetik sortutako herria da. Bertako **San Bartolome eliza** XIX. Mende bukaerakoa da eta Iriarte jauregia XVII. mendekoa. Hortik gertu **Santa Ageda ermita** dago. Goiatzen **Jasokundearen eliza** eta **Goiatz dorrea** ikus daitezke.



Hernani



Iturriotz Ostatua (Aia)




Brigiden Komentua (Lasarte-Oria)



Udaletxea (Hernani)



Gazume mendiaren hegaletik Zelatuneko belardietara joan daiteke. Eskualdeko bistak ikusgarriak dira bertatik.



BTT Txirrindulariak

Etapia menditsua da eta Oriako Bailarako ibilbidea hartzea gomendatzen da. Hala ere, posible da mendi pistetatik Andazarrateraino iristea. Errepide batetatik Billabonara jaitsi daiteke eta bertan Oriako Bailarako ibilbidearekin topo egiten du.



(km 0) Hernani

Hiriburu historikoa atzean utzi eta eskumatara egingo dugu GI-131ra iritsi arte, hau gurutzatu eta Santa Barbara auzora eramango gaituen desbideraketa hartuko dugu. Landabide estu batetatik igota Agirre baserriraino iritsiko gara. Bertatik, ondoren asfaltatuta egongo den bidezidor bat ateratzen da, bertatik igo eta muino batetan dagoen bidegurutze batetara iritsi arte. Baserri batetara ino jaisten den pista hartuko dugu eta igoera txiki baten ondoren Lasarte-Oriako kanposantu ondotik pasatuko gara. Berriz errepidetik, Zabaleta auzoa pasatu eta gero Lasarte-Oriara jaitsiko gara.

(km 4,7) Lasarte-Oria

Buenos Aires aldatatik jaitsiera gogor baten ondoren N-1 azpitik pasatuko gara eta San Pedro elizaraino jaitsiko gara. Ondoren Lasarteko hirigunea gurutzatuko dugu, Oria ibai ondora iritsi arte. Lasarte-Oria utzi eta hipodromoko zubia gurutzatuko dugu. Ondoren eskumatara hartuko dugu Zubietara iristeko. Bertan Santiago eliza ikusi ahal izango dugu.

(km 6,1) Zubieta

Zubietako hirigunea utziko dugu. Lertxundi baserrira iritsi baino zertxobait lehenago ezkerretara desbideratuko gara eta Letabide bidetik Otaikogaineraino igoko gara. Pista, bidegurutze batetara iritsi arte jarraituko dugu eta bertan, zuzen, hurrengo bidegurutzerara arte joango gara. Han pista batetatik gora doan bidezidorra hartuko dugu. Gorantz joanda, Andatza mendiaren hegoaldean dauden koniferoz betetako zenbait pista gurutzatuko ditugu. Etumeta jaitsiera guinea pasa eta gero, Ziortza muinora dioan pista hartuko dugu. Hesiaren beste aldean, beste pista batek Eskaltzu inguratan jarraitzen du eta gero porlanezko bide batetatik jaitsiz, eskumatara irteten den desbideraketa bat hartuko dugu, gaur berriztatuta dagoen Zarate Ostatura iritsi arte.

(km 14,9) Venta Zarate

Zarateaitz gailur arrokatsua inguratan duen bidetik jarraituko dugu muino batetara iritsi arte. Hau hilarri bat dagoelako ezagutuko dugu. Bertan, Saskarate baserrira eramango gaituen landabide bat hartuko dugu, eta hortik aurrera bideak asfaltatutako errepide batetatik jarraituko du. Muñobil eta Bulanomendi ondotik pasatuko gara eta ezkerretik Sarobezelaita muinora iritsiko gara. Asfaltatutako bide batek, Irumuño izenarekin ezagutzen den, hiru muinoen multzoa inguratzea ahalbideratzen du. Hortik jarraituko dugu GI-2631ak zeharkatzen duen Andazarrate muinora iritsi arte.

(km 19,4) Andazarrate

Andazarrate, asfaltatutako bide batetatik Iturriotz ostatura abiatuko gara, gora dioan harrizko bide motz bat hartzeko. Hau pista batetan amaitzen da. Pista horretatik metro batzuk ibili eta gero, ezkerretara bidezidor bat hartuko dugu eta bertatik Iturriotz ostatu ospetsura iritsiko gara. Metro batzuk beharago San Juan ermita dago, eta bertan aurkitzen da lekuari izena ematen dion Iturriotz iturria.

(km 21,3) Iturriotz

Ermita ondotik igoera hasteko bidea irteten da. Lehenengo Sagain zelaietatik eta gero Gazume mendiko hegaletik, Zelatun muinora iritsiko gara.

(km 24) Zelatun

Zelataun inguruetatik ibilbidea, Ernioko gailurrera dioan bidetik, Gipuzkoako behatoki nagusienetako baten barrera sartzen da. Bidezidorra hegoaldean jaisten da, gora doan pista bat zeharkatu eta ezkerretik gailur bat inguratan du. Ondoren Iturburu muinora iritsiko gara eta bertan, lehenengo ezkerretara eta berehala berriz eskumatara hartuko dugu. Bide zahar batek bailara barnera eramango gaitu, bertatik, metro batzuk ibili eta gero Bidaniako hirigunera eramango gaituen ezkerretara dagoen bidea hartuko dugu.

(km 28,8) Bidania



ETAPA 3A TOLOSA ZERAIN

(31,2 km)



Oria Bailarako bidea

TOLOSA

Tolosa Alfontso X Jakintsuak sortu zuen 1256. urtean. Beranduago, 1844 eta 1854 bitartean Gipuzkoako hiriburua izan zen.

Santa Maria elizak estilo gotikoa eta 1761. urtean gehitu zitzaion dorre barrokoa ditu. Alboko kapera batetan desagertutako San Esteban ermitako aurrealde erromaniko-gotikoa gordetzen da.

Probintzia Artxiboa, Gipuzkoan hormigoiez eraikitako lehenengo eraikinetako bat izan zen. Bi **udaletxe** ditu: bat 1658-1672 bitartean eraikia eta bestea XVII. mendean. **Kultur Etxeak** estilo neoklasiko isabeldarra du.

Atodo jauregi errenazentista XVI. mendekoa da. Armarria eta balkoi eder bat ditu. **Iturritza jauregiak** berriz bi armari eta balkoi korritua ditu. Euskal eraikin barrokoa den **Aranburu jauregia** eta Idiakez jauregia XVII. mende hasierakoak dira. **San Frantzisko komentua** XVI. mendekoa da eta Gaztelara doan **errege-bide** irteeran kokatzen da.

ALEGIA

Uste da Enrike IV.ak hiribildu titulua 1454. urtean eman ziola, hala ere, Tolosara lotuta egon zen, 1615. urtean koroak hiribildu beste titulu bat eskaini zion arte. Hirigune historikoa Oria ibaiaren ibilbidera moldatuta dago. **San Juan Bautista eliza**, antzinagoko baten gainean eraikia, honen aurrealde gotikoa kontserbatzen du. Zabalkuntza XVI. mendean hasi

zen eta XVIII. mendean dorrea eta aurrealdea eraiki ziren. **Santo Kristoren gurutzotokia**, eraikuntza xumea da. Armarri barrokoa eta burdinazko hesi batekin babestuta dagoen eta kalbario bat ikus daitezke bertan.

BEASAIN

Erdi Aroko **Andre Mariaren Zeruratzea elizak** arku bat dauka pulpituia eta Igartzako kapelaren azpian. **Igartza** da interes handiena sortzen duen multzo arkitektonikoa. **Dolorea etxeak**, XVI. mendeko etxetzarra, zubiak (Gaztela eta errege-bideko adar nagusiak lotzen zituen puntua), burdinolak, bere makineria kontserbatzen duen errota eta XV. mende erdian eraikitako **Igartza jauregiak** osatzen dute. Loinaz auzoan, estilo neoklasikoa duen **San Martin Basilika** eta **Loinazeko ermita** daude.

LEGORRETA

San Salvatore eliza, **Oriar oinetxea**, Santa Ana eta Berostegiko Santa Marina **ermitak** dira eraikuntza aipagarrienak.

ORDIZIA

1256. urtean Alfontso X Jakintsuak sortutako herri honek, defentsa zerbitzua egiten zuen mugarekin zeukan gertutasuna zela eta. Erdi Aroko hirigunean XVII. mendean eraikitako **Barrena etxea**, **Zabala** eta **Abaria** oinetxeak, **Muxika dorretxea**, **udaletxea** edo XVI. mendeko **Jasokundeko**

Andre Mariaren eliza nabarmentzen dira.

OLABERRIA

Populaketa sakabanatuta dago udaletxea eta **San Juan Bautista eliza** ezik. Tenplua, hasieran txikia zena, handiagotzen joan ziren XVI. mendetik aurrera. **Santa Cruz de Agirre ermitak** aldarea babesten duen egurrezko ganga du.

IDIAZABAL

Idiazabalgo antzinako parrokia zen **Gurutzeta** ermita, Gipuzkoako kristau gurpen gune zaharrenetarikoa da. **San Migel eliza**, XVI eta XVII bitartean eraberritu zuten. Aurrealdea erromaniko eta gotikoko trantsizio garaia dago.

SEGURA

1256. urtean Alfontso X "Jakintsuak" sortu zuen, aurretik zegoen herriak sute bat jasan eta gero. Hasieran harresia, zubi altxagarria eta zuloa zituen eta dorreek defendatzen zituzten bost atetatik bakarrik sar zitezkeen bertara.


Jasokundeko Andre Mariaren elizak euskal gotiko estiloa dauka. XVI. mendean eraberritu eta handitu zuten, orduan eraiki zen dorrea. Churrigueresko estiloko oholda bat du barruan. Hirigune historikoan, XVI. mendeko **Arrue oinetxea**, XV. mendeko **Guevara oinetxea**, XVI. mendeko **Ardixarra etxea**, gaur egun museoa dena, eta XVII. mendeko **Lardizabal jauregia** daude ikusgai.



Igartzako Multzoa (Beasain)



San Miguel Eliza (Idiazabal)




Probintzia Artxiboa (Tolosa)



Alegia




Tolosak, 1844 eta 1854 urte bitartean Gipuzkoako hiriburu izan-dakoak, lurraldeko hirigune historiko handienetarikoa bat du.



BTT Txirrindulariak

Aurreko etapan bezala, Oria Bailarako bidetik joatea gomendatzen da. Argisainetik posible da Legorretara pista batetatik jaitsi eta ibilbidea Oriako Bidetik Ormaiztegiraino jarraitzea. Puntu honetatik Zerainera, proposatutako ibilbidetik joan daiteke, Liernia eta Mutiloa artean dagoen zatia ezik. Hau GI-3572 errepidetik egin beharko da.

(km 45,5)



(km 76,7)

(km 0) **Tolosa**

Hirigune historikoa atzean utzita, Oria ibaia zeharkatuko dugu Berazubi zubitik. Oriako Pasealekutik jarraituko dugu Usabel industrialdera iritsi arte. Hau pasatu eta gero Ollaun mendira igotzen den landabidea hartuko dugu. Bidegurutze batetan eskumatik jarraituko dugu, gailur batetara iritsi arte, asfaltoa utzi eta antzinako bide batetan sartuko gara harizti eder baten azpitik. Ollaun eskumatik inguratu ondoren, bidezidor batetatik zerratoki batetaraino jaitsiko gara eta bertatik Altzoazpiraino San Salbatore eliza ondoan, bertan Santo Kristoren ermita aurretik pasatzen den, Alegiara eramango gaituen errepidea aurkituko dugu.

(km 5,5) **Alegia**

Hirigune historikoa zeharkatuko dugu, ondoren GI-2131 errepidean sartzeko eta Ikaztegiatara zuzenduko gara Pilar ermitatik pasatuz. Ondorengo herria Legorreta da. Bertara, Oria ibai gainetik pasatzen den Torreko auzotik iritsiko gara. Hirigune historikoa zeharkatuko dugu berriz ere GI-2131ean sartu eta Itsasondora joateko. Honen ondoren Ordiziara joateko dagoen desbideraketa hartuko dugu. San Juan ermita pasatu eta metro batzuk beranduago, izen berdina duen auzorantz zuzenduko gara. Zabala bidetik Foruen Pasealekura helduko gara. Hirigune historikoa atzean utzi eta ondoan dagoen Beasainera zuzenduko gara.

(km 18) **Beasain**

Herri honetako hirigune historikoan ibiliko gara Igartzako monumentu multzora iritsi arte. Bertatik oinezkoentzako pasabide bati esker, N-1a gurutzatuko dugu. Industria-nabe bat eskumatara utzi eta bi baserriren artean pasatu eta gero, landabide batetatik Altamira baserrira igoko gara. Metro batzuk lehenago, eskumatara dagoen pista bat hartuko dugu. Honek, Goierrri inguruko bista ederrak ditu eta Garitain baserriraino eramango gaitu. Bertatik, kanposantu ondok pasatuta, Olaberría hirigunera iritsiko gara.

(km 22,1) **Olaberría**

Hirigune historikotik jaitsi eta errotonda batetatik 250 bat metrotara, Aldasoro baserriraino eramango gaituen gorako landabide bat hartuko dugu. Aurrerago, errepide batek, Oiarbide etxe bakarriraino gidatuko gaitu eta aurrerago Nafarrasagasti baserriraino. Bertan, ezkerretara dagoen bidezidor bat hartu beharko dugu. Bertatik jaitsiko gara errekatxo bat gurutzatu arte eta Artsugarats galtzadatik, Gurutzeta ermitaraino igoko gara. Hau gailur batetan kokatuta dago. Porlanezko bide batetatik eta Uzkanga galtzadatik metro gutxitara, Idiazabalgo plazara jaisten da.

(km 26) **Idiazabal**

Santa Krutz gurutzotik pasatuko gara ondoren kale Nagusia gurutzatzeko. Igotzen hasiko gara, N-1 azpitik pasako gara Lobioko behatokira eta ondoren Urrutikoetxea baserriraino iritsi arte. Bertan hasten da GI-2637 errepidera eramango gaituen jaitsiera. Hemen, Guardia industrialdera eramango gaituen bide-gorriarekin egingo dugu topo. Atzean utzi eta gero, kanposantu ondok pasako gara eta Erdi Aroko Segura herrira iritsiko gara.

(km 29,4) **Segura**

Hirigune historikoan Azpiko Portaletik sartuko gara, kale Nagusitik ibiliko gara eta Zerain Portaletik aterako gara. Oria ibaia Zubiaundi zubitik zeharkatu eta gero bariantea pasatuko dugu eta Zerainera eramango gaituen antzinako galtzada zoragarritik ibiliko gara. Zabalegi estelatik pasa eta gero. Herri txiki honetako plazan, etapa Saiatz Bidearekin elkartzen da.

(km 31,2) **Zerain**



ETAPA 3B BIDANIA ZERAIN

(25,4 km)



Saiatz Bidea

SANTA MARINA

Albizturri dagokion auzo honetan eta Aralar Gipuzkoako kostarekin lotzen duen antzinako transhumantzia bidean aurkitzen da **Santa Marina Haundi baserria**. 1587. urtean sortu zen eta lehenago pelegriren ospitalea zen. Ondoan Argisaineko **Santa Marina eliza** dago, aurrealde erromanikoa dauka, lehenago bertan zegoen elizatik gelditzen den bakarra.

BEASAIN

Murumendi mendia pasa eta gero **Astigarretako San Gregorio ermita** aurkitzen da, indiano batek eraikitako eraikin xumea da eta orain atsedentoki bezala erabiltzen da. Astigarreta, lehen herria zena, gaur Beasain barruan kokatzen da eta bertan **San Martin eliza** aurkitzen da.

EZKIO-ITSASO

Ezkion, XVI. Mendean eraikitako **Igartubeiti baserri-museoak**, sagardoa ekoizteko dolare gotiko eder bat dauka. **Kizkitzako Andre Mari ermita**, oso eraikin xumea da, kanpotik ia hornitu gabea, izen marinela du eta fededunek gurpen handia erakusten dute.

ORMAIZTEGI

Hasieran, parrokiaren inguruan multzokatzen zen herria da. 1384. urtean Segura herriari lotu zitzaion. Lotura hau 1615. urtean Felipe II.ak hiribildu titulua eman zionera arte iraun zuen.

San Andres parrokiak, areto oinplanoa eta gurutze-gangak ditu. Nabearen erdian bataiarri garrantzitsu bat aurkitzen da. Sinbologia erlijiosoa duten motibo geometrikoekin hornituta dago eta hauen artean Hirutasun Santuari erreferentzia egiten dion zirkulu multzo bat dago.

Iriarterdikoa etxea, XVIII. Mendeko baserri ederra da eta bertan bizi izan zen Zumalakarregi jenerala. Jatorrizko arkitektura errespetatuz, eraberritu egin dute eta museo bat da gaur egun. Bertan pertsonaiaren irudia da nagusi eta XIX. mendean Euskal Herrian eta Europa osoan gertatutako aldaketa iraultzaileak dira nabarmen. Iparraldeko trenbidea egin zuteneko garaia, herriak bizi izan zuen oparoena eta garatuena izan zen. Aipagarriak da 1864. urtean eraiki eta inauguratu zen **biaduktu** ospetsua. Gaur egun ez da erabiltzen hala ere, 284 metrotako luzera du eta Lavaley ingeniariak diseinatu zuen.

MUTILOA

Herri honetako erreferentzia puntu bat **Lierniako Andre Mariaren ermita** da, oparotasuna eta ukuiluko hegaztien zaindaria. Ermita paraje polit batean kokatzen da. Gurtzaile asko ditu eta normala izaten da argizari horiz egindako bilkariak eskaintzea umeen osasuna zain dezan.

San Migel parroki eliza, areto oinplanoa, dorrea eta gurutze-gangak ditu. Meatzte ustiapena antzinatek egon da eta XIX eta XX. Mendetara luzatu zen. Hemen itxi zuten Gipuzkoako azken meatzte. Minerala garraiatzeko, meatzak Ormaiztegiarekin lotzen zuten trenbidea eraiki zuten.



Kizkitzako Andre Mari Ermita (Ezkio-Itsaso)




San Miguel Eliza (Mutiloa)



Ormaiztegi



Ormaiztegiko biaduktua 1864. urtean inauguratu zen Iparraldeko trenbidearen eraikuntza aitzakizat hartuz.



BTT Txirrindulariak

Aurreko etapan bezala Oria Bailara bidetik joatea gomendatzen da. Argisainetik posible da Legorretara pista batetatik jaistea eta Oria Bailara bidetik Ormaiztegiraino jarraitzea. Puntu honetatik Zeraineraino posible da proposatutako ibilbidetik jarraitzea, Lierniatik Mutiloara doan zatia ez ezik. Hau GI-3572 errepidetik egin beharko da.

(km 55,0)



(km 80,4)

(km 0) Bidania

GI- 2634 errepide ondoan dagoen pasealekutik irtengo gara Tolosako norabidean, ezkerretara Bidania muinora eramango gaituen pista bat hartu arte. Baserri baten atzetik pasatuko gara berriz errepidera bueltatu eta Santutxo bentara iritsi arte. Bertatik, GI-3042 errepide estua hartuko dugu. Beraundegi bailara txikia zeharkatu eta muino batera igo ondoren, pinudi artean Albizturgo Argisain auzora iritsiko gara.

(km 5,4) Argisain

Eliza parean ateratzen da Larrañagako baserrietara eramaten duen bidea. Hauen eskumatara gora doan landabidea hartuko dugu. Muino batetara iritsiko gara eta bertatik porlanezko pista bat ikusiko dugu. Ezkerretara bira egin eta bertatik jarraituko dugu zenbait hegaletatik zehar Bidegoian, Beizama, Beasain eta Itsasondo herrien mugan dagoen Domiko mugarría kokatzen den gailur batetara iritsi arte. Porlana utziko dugu ezkerretara Murumendira igotzen den bide bat hartu arte. Mendia eskumatik inguratuko dugu altzifre landaketa batetara iritsi arte. Ezkerretik gailurrera igo eta panoramika politez gozatzeko aukera dugu. Bideak Arrapaitz iturri ondotik jarraitzen du ondoren Larrarte muinora jaisteko. Ondoren ezkerretara dagoen desbideraketa hartuko dugu eta jaitsiera txiki baten ondoren Otegi baserrira iritsiko gara. Bidezidor batetatik hegalean zehar jarraituko dugu, baserri baten hondakinen ondotik pasa eta gero muino batera helduko gara, hau San Gregorio ermita aurretik dagoen bidegurutze bat da eta atsedenleku bezala erabiltzen da. Gelditzen den bakarra legal bat inguratzea eta Mandubia bentara heltzeko metro batzuk jaistea da.

(km 13,7) Mandubia

Ezki-Itsason eta GI-2635 errepidea zeharkatu eta gero, bidegurutze batetara iristen den pista bat hartuko dugu Mandubizar baserri aurretik pasatuz. Eskumatik, marinela izena duen Kizkitzako Andre Maria ermita dagoen muinora heltzen da. Bideak ezkerreko pistatik jarraitzen du jaitsiera luze bat hasteko. Eskumatik hegal batzuk inguratuko ditugu Urteaga baserrira iritsi arte. Bertan, metalezko atetik pasatu gabe, Aranaga baserriraino jaisten den bidezidor bat hartuko dugu ezkerretara. Puntu honetatik, porlanezko bidetik jaitsiko gara eta behin bailaran gaudela, autobide azpitik pasatuz Ormaiztegiko kaleetan azalduko gara. San Andrez elizaren atzeko aldetik, Zumalakarregi museo parean dagoen plazara joango gara.

(km 20,2) Ormaiztegi

Iparraldeko trenbideko geltokira zuzenduko gara baina bertara iritsi baino lehenago trenbide azpitik igarotzen den porlanezko bide batetatik jarraituko dugu. Ondoren igotzen hasiko gara berriz, berehala, hau utzi eta antzinako meatze trenbidearen ibilbidera sartuko gara eskumatik. Lierniako Andre Mariaren ermitara iritsi arte jarraituko dugu.

(km 23,2) Liernia

Bide zahar batetatik Andramaiztegi baserriraino jaitsiko gara, bertan GI-3572 errepidea hartuko dugu Mutiloako erdigunera iristeko. Bertan gaudela, ezkerretara eta berehala eskumatara egingo dugu bira. Metro gutxitara asfaltoa utzi eta porlanezko bide batetatik Murgiaran baserriraino igoko gara, bertan egurrezko ate bat gurutzatu eta gero, zelai bat zeharkatzen duen bidezidor bat hasten da. Hesi pare bat gurutzatu eta Irukate baserriraino igotzen da. Asfaltatutako bide batetatik gurutze-bide batetara iritsi arte jarraituko dugu, bertan desbideraketa bat hartuko dugu eguna Zeraineko plazan bukatzeko.

(km 25,4) Zerain



ETAPA 4 ZERAIN AGURAIN

(25,9 km)



ZERAIN

Aizpean, meatze aktibitate handia egon zen iraganean. Hirigunean, **Santa Maria parrokia** aipatu daiteke. XVIII. mende hasieran, antzinako baten gainean berregin zen. Oholtza barrokoak eta Erdi Aroko elementuak, lehenagoko bataiarritik jasoak, Kristo bat eta Zeraindarren hilobia dauzka. Eraikin aipagarri bezala **Jauregi baserria**, Zeraindarren antzinako etxea, Bikario Etxea edo Benefiziazurre daude.

San Blas ermitan, koroko aroztegia aipatzekoak dira, ferra-arkuz hornitutako egurrak mudejar estilokoak dira.

ZEGAMA

Balio estrategiko handia duen gunen batetan kokatzen da eta Gipuzkoako sarrera puntua da. Zegamako historia, hasieran Segurakora lotuta azaltzen da. 1615. urtean Felipe III.ak hiribildu titulua eskaini zion. **Tourseko San Martin eliza**, XV eta XVI. mendeetan eraiki zen eta zabalkuntzak eta erreformak ere izan zituen. Bataiarri interesgarri bat eta gurutze erromaniko bat ditu, azken hau **Gurutze Santua ermitan** zegoena da, aldare nagusian oholza bat eta **Zumalakarregiren mausoleoa** dauzka. Antzinako parrokia San Bartolome ermitan zegoen kokatuta eta gaur egun kanposantu bezala erabiltzen da. Hemen, ur bedeinkatu gisa erabiltzen den kapitela erromaniko-gotiko bat kontserbatzen da. Uruetxeta ermita, izen berbera duen baserriaren ondoan

kokatzen da, San Adrian zubira dioan bidean. Antzina pelegrienen ostatua izandakoa.

Sancti Spiritus ermitaren jatorria tenplarioekin lotuta dago. Pelegrienen ospitalea izan zen eta bertara, hitz egiten ikastea kostatzen zitzairen umeak eramaten zituzten lekua ere bazen. Beste ospitalea Andueza baserrian aurkitzen zen, hau gaur egun Egurraren Interpretazio zentroaren egoitza bezala erabiltzen da.

ALTZANIA PARTZONERIA

Partzoneria Gipuzkoa eta Arabako zenbait herritako herri-lurrez osatuta dago. Hauek batera ustiatzen dira.

Leizarrateko San Adrian kobazuloa edo tunel naturalera arku zorrotz bat duen ate batetatik sartzen da. Araba eta Gipuzkoa artean erabili zen XI eta XII. mendeetan. Hala ere, XIII. mendetik aurrera ezagutu zen honen oparotasun handiena, Gaztela eta Nafarroako erreinuen istiluak zirela eta. Alfontso VIII.ak Gaztela Europarekin komunikatu eta Nafarroatik ez pasatzeko, San Adrian igarobidea errege-bide bihurtu zuen. Tunel barruan 1883. urtean eraiki zen, izen berbereko ermita aurkitzen da. Hala ere, 1010. urtean bazegoen beste txikiago bat leku berberean.

ZALDUONDO

Pelegrienen ibilbideetako antzinako dokumentuetan, herri hau Saldodon izenarekin agertzen da. Bidegurutze bat da

eta leku estrategikoa bai pelegriin zein merkatarientzat, San Adrian tunelarekin duen gertutasunarekin.

Aistrako antzinako herrian, Santiagoko Bide ertzean, **San Julian eta Santa Basilaren ermita** aurkitzen da. XII. mendekoa da eta elementu prerromanikoak ditu.

Tolosako San Santurnino parroki eliza XVI. mendea eta ondorengo mendeetan eraiki zen. Elizari izena ematen dion santuaren bizitzako eta martirioko irudiak dituen oholtza barroko ikusgarria, eta azpian, pelegriin arropak dituen Santiago apostolua irudikatzen duen tailu bat ditu.

Lazarraga Jauregia, XVI. mendekoa, ate platereskoa eta zutabe jonikoak ditu. Horien gainean, ertzetan bi gudari agertzen diren armarri izugarri bat aurkitzen da. Hori dela eta jauregia "Los Gizonas" izenarekin ere ezagutzen da. Barruan, XVI. mendeko horma-irudiak daude. Gaur egun museo etnografiko bat dago bertan eta Santiagoko bideari buruzko areto bat.

ERDOÑANA

Mendebaldeko sarreran antzinako etxe bat kokatzen da. Armarrian "sui de Iván Ruiz de Ordoñana" hitzak irakur daitezke. XVI. mendeko **Jasokundeko Andre Mariaren elizak** aurrealde erromanikoa, arku zorrotza eta XVII. mendeko dorre bat ditu. **San Millan baseliza**, XVII. mendea eta hurrengo mendeetan eraberritu zuten. Aurrealdean Gaztela eta Leoneko armarri dauka ardi-larruarekin.




Lazarraga Jauregia (Zalduondo)




Andre Mari Eliza (Zerain)

Tourseko San Martin Eliza (Zegama)





Leizarrateko San Adrian haiztuloa Gipuzkoatik Arabara joateko pasabidea izan zen XI eta XII. mendeetan.



BTT Txirrindulariak

San Adrian tunelaren igoera eta jaitsierak eskaintzen duen erliebea eta lurraren zailtasuna dela eta, Zegamatik Otzaurteko portua eta Altsasura jarraituz Agurainen amaitzen den errepidea hartzea gomendatzen dugu.

(km 80,4 Saiatz) (km 76,7 Oria)



(km 106,3 Saiatz) (km 102,6 Oria)

(km 0) Zerain

Jauregi aurretik pasatzen den landabidetik pasatuko gara, metro gutxi batzuetara eskumatik irteten den bidea hartuta, Sagastibil baserrira iritsiko gara. Gertuko bidegurutze baten, ezkerretara jarraituko dugu errege-bide batetik, hau bidezidor batetan bihurtuko da eta 1,5 kilometrotara, Arrolaberri baserrira iristen da. GI-3251era igoko gara eta hau metro gutxitara ezkerreara utziko dugu pista bat hartzeko. Berehala, errepide luzea saihesten digun desbideraketa bat egingo dugu. Berriz GI-3251 errepidetik, Segura Zegamarekin lotzen duen GI-3251bifraino iritsiko gara. Bertatik Zegamako hiriguneraino iritsiko gara.

(km 5,9) Zegama

Hirigunea zeharkatu eta gero GI-2637tik igoko gara, Gurutze Santua ermita ondotik pasatuz. 1,5 km-tara, eskumata porlanezko bide bat hartuko dugu, San Adrianera joateko igoera hasiz. Zenbait bidegurutze pasatu eta gero Iruetxeta ermita eta Buenabista baserrira iritsiko gara. Bertan porlana amaitu egiten da eta ezkerretara dagoen landabide bat hartzen da. Zenbait harresi eta errekatxo bat zeharkatuko ditugu borda batzuen ondora atera arte. Eskumata biratu eta Iturzabal alartze basoa zeharkatuko dugu pista bidegurutze batetara iritsi arte. Ezkerreko pista hartuko dugu aterpetxe ondotik pasatuz, pagadi zoragarri bat zeharkatzen duen beste pista bat hartuko dugu eta hemendik Sancti Spiritus ermitara iritsiko gara.

(km 12,6) Sancti Spiritus

Altzaniako Partzodegira galtzada batetatik sartuko gara. Urrunera Leizarrateko San Adrian kobazulo-tunela ikusiko dugu. Barruan izen berbera duen ermita kokatzen da. Erdi Aroko galtzada, oso ongi kontserbatuta, Eskaratz parajeraino iristen da eta iturri bat ezkerretara utzi eta gero ibarabide batetan sartzen da. Hemendik Gipuzkoa eta Araba tartean dagoen Portugaina muinora igoko gara.

(km 14,4) Portugaina

Orain zehaztu gabe dagoen galtzadatik jarraituko dugu. Galtzada zaharra legarrezko pista batetan irteten da eta Zumarraundiko asfaltatutako bidera iritsi arte bertatik jarraitu beharko dugu. Bertatik jaitsi egingo gara. Galtzada eta aurreko pista lotzen diren lekuan, Galarretako bideko bariantea ateratzen da. Hau alde batetara utziko dugu. Mendi artetik igarotzen den bidetik abiatuko gara Sorabarri Zelaira iritsi arte. Bertatik Araiara doan bidea ateratzen da. Hemendik aurrera erliebeak gorabeherak ditu Aistrako San Julian eta Santa Basilisa basilizara eramaten duen desbideraketara iritsi arte. Ondoren, gure eskumata, Zaldundora gerturako gaituen bidegurutze bat aurkituko dugu.

(km 19,9) Zaldondo

Irteeran Lazarragarren armarrria dagoen gurutzadura polita aurkitzen da. Badago, herri honen ondare aberatsari gehitzen zaion zubi eder bat ere. Etapak errepideak egiten duen ibilbidetik jarraitzen du, pasatu garen herri guztien izenak gogoratu. Hurrengo herrira iritsi baino lehenago, errepidetik metro batzuetara San Millan eliza agertuko zaigu, izen Berbera duen ermandade eta junta biltzen diren lekua.

(km 23) Ordoñana

Herri hau goitik behera zeharkatuko dugu errepidearen ibilbidea jarraituz, gailurrean Jasokundeko Andre Mariaren eliza dugula. Harresiz inguratutako Agurainera iritsi baino lehenago San Lazaro eta Magdalena ospitale zaharren aurretik pasatuko gara, gaur egun etxe pribatu bat da. Bentaberri gurutzadura artistikoa edo Santa Maria ere ikusiko ditugu eta aurrerago Zadorra ibaia zeharkatzen duen zubia.

(km 25,9) Agurain

Gailur baten gainean dagoen harresiz inguratutako herri honetara iparraldetik sartuko gara. Bertan harresi beranean dagoen baserrira zaintzen duten Santa Maria bi gotorlekuak ikusiko ditugu. Kale edo ardatz nagusian eraikin gama handia ikusiko dugu. Hau kanpo aldeko eraikinekin osatzen da.



ETAPA

5

AGURAIN VITORIA- GASTEIZ

(27,4 km)



AGURAIN

Erdi Aroko hiribildua 1256. urtean Gaztelako Alfontso X. herri forua eman zionetik. Antzina pelegrinak herrira **Santa Maria atetik** sartzen ziren, ondoren, izen berdina duen elizara joateko. 1530. **Santa Maria eliza-gotorlekua** XIV eta XVI mendeen artean eraiki zen zaharrago baten gainean. Sotokoruak estilo platereskoa du eta Karlos I. ren armarrria du. Oholtza Nagusia 1530. urtekoa da. **San Juan Bataiatzailea eliza-gotorlekuak**, estilo gotiko berantiarra du eta XIII. eta XIV. mende bitartean eraiki zen. Arkupe barrokoa eta mihise flamenkoak dituen XVII. mendeko Aldare Nagusia ditu. **Ondoan arkupedun San Juan plaza** aurkitzen da, ohiko karrerapeekin, bertan hiribilduko azoka ospatzen da. Aipagarriak dira beraien jaunen armarrriak kontserbatzen dituzten, Azkarraga Etxea, Begoñatarren Etxea, Bikuñatarrena edo Lazarragatarren bezalako jauretxeak.

GAZEO

Tourseko San Martin parroki eliza XIII. mendekoa da, erdi puntuko arku arkupea eta kanoi ganga ditu. Absidea eta presbiterioa estaltzen duten estilo gotiko-lineala duten margolanak aipagarriak dira. Horma-irudiak XIV. mendekoak dira eta ikonografia eder baten bitartez irudi erlijioso desberdinak irudikatzen dituzte.

EZKEREKOTXA

Santiagoko bideko tenplu gurtuenetarikoa XVI. mendeko bigarren erdian eraikitako **San Romane eliza** da. XII. mendeko portada eta XIII.eko presbiterioa aipatzekoak dira, baita lehiate protogotiko bat eta harrizko oholtza errenazentista bat ere.

DULANTZI

Herritik gertu dagoen Henaio mendixkan, Burdin Aroko herri bat, gaztelu bat eta Erdi Aroko ermita bat kokatu ziren 1337. urtean Alfontso XI.ak sortutako hiribildua. XIV-XVI mendeetan eraikitako **San Blas elizako** dorretik herri dena zegoen ikusmenean. Eliza barruan hasierako barrokoko oholtza ikusgarri bat dago. **“Erromatarren bidea”** izenarekin ezagutzen den ibilbidean **Aialako Andre Mariaren Santutegia** aurkitzen da. XIII. mendeko eraikuntza ikusgarria da, lau arkutako arkupea de eta portadan txirla bat agertzen da. Barruan XIV. mendeko Andra Marinen tailu bat dago.

BURGELU

Gaztelako Alfontso XI.ak sortutako hiribildua. Bertan **Arraingo San Juan basiliza** dago. XII. mendekoa da eta Arabako erromanikoko obrarik zaharrenetarikoa bat da.

VILLAFRANCA

XI. mendean ezagutzen zen herri hau, bertan **San Andres**


eliza dago, portada plateresko berantiarra dauka.

ARGANDOÑA

Antzinako **galtzada erromatarretik Santa Kolumba eliza** kokatzen den herrira sartuko gara. XIII. mendekoa da eta arku zorrotz portada eta hornitutako lau zutabe eta kapitela ditu. Mendixka baten kokatuta, herri honetan **Estibalziko santutegia** aurkitzen da. X. mendean ezaguna zen jadanik leku hau, estilo erromanikoa eta elementu pregotikoak ditu. Porta Speciosa portada, XIII. mendeko bataiarria eta XII. mendeko Andre Mariaren irudia ikusgarriak dira.

ARKAIA

Errepide ondotik ikus daitezken **terma** erromatar batzuen hondakinak oso interesgarriak kontserbatzen ditu. Honek, bertatik Bordenetik Astorgara zioan galtzada pasatzen zela gogoratzen digu. **Jaiokundeko Andre Mariaren eliza**, elementu erromanikoen gainean garai desberdinetan eraikia. Dorre neoklasiko bat eta Oholtza nagusi barroko bat ditu.



Arraingo San Juan Basiliza (Burgelu)



Aialako Andre Mariaren Santutegia (Alegria-Dulantzi)



Tourseko San Martin Parroki Eliza (Gazeo)



Arkupedun San Juan Plaza (Agurain)



Estibalziko santutegian, izen berbera duen eta Arabako zaindaria den XII. mendeko tailu batetan dagoen Ama Birjina gurtzen da.



BTT Txirrindulariak

Ibilbide honek ez du inongo zailtasunik oso egokia da bai erliebeari dagokionez bai lurraren zolatzetaz ezin hobeari dagokionez.

(km 106,3 Saiatz) (km 102,6 Oria)



(km 133,7 Saiatz) (km 130,0 Oria)

(km 0) Agurain

Herria, arkupedun San Juan plazatik eta Erregearen Ataritik irtenda utziko dugu eta mendebaldean dagoen industrialderantz abiatuko gara. Hemendik autobia azpitik igarotzen den tuneletik urrunduko gara eta Gezeora eramango gaituen legarrezko landabide batetatik jarraituko dugu.

(km 3,8) Gazeo

XIII. Mendeko elizak ematen digu ongi etorria, barruan margolan gotiko ederrak ditu, penintsulako iparraldeko interesgarriak. Herria asfaltatutako bide batetatik utziko dugu, zelaietan zehar Ezkerekotxara iritsi arte.

(km 5,8) Ezkerekotxa

Herri hau atzean utzita, trenbide geltokira zuzen dioan bide bat hartuko dugu eta bertan aldapa gora txiki bat igotzen hasiko gara. Amaitutakoan mendi hegalean zehar doan bide bat hartuko dugu, hau korridore polit bat da eta urtegi natural batzuen isiltasunaz gozatzeko aukera ematen du, erreferentzia puntu bezala "Henaioko Gaztelua" mendixka hartu dezakegu. Hau, Dulantzi oinetan duen Burdin Aroko herri bat da. Ibilbidea Dulantziara sartzeko egin duten bide berriak moztu du A1etik, behin oztopo hori gainditu eta gero, erromatarren bidea hartuko dugu eta honek Aialako Andre Mariaren Santutegira eramango gaitu. Dulantziara jaisten den bidea albo batera utzi eta Alegria ibaiarekiko paralelo doan erromatarren bidea hartuko dugu berriz ere eremu zahar batetara iritsi arte. Bertan lehenago zegoen tenplu erromatar baten aztarnak daude. Gaur egun Arraraineko San Juan ermita da hau. Puntu honetatik Burgelura jaitsiko gara.

(km 14,9) Burgelu

Herria zeharkatuko dugu baserri ondoetatik igarotzen den beste landabide bat hartzeko. Bidegorria pasatu eta gero beste bidegorutze batetara iritsiko gara. Bertatik irteten den bide batek Estibalziko Andre Mariaren Santutegia den gune historiko-artistiko ederrera eramango gaitu. Bertan aterpetxe bat dago. Guk Villafrankara joateko jaisten den bidetik jarraituko dugu.

(km 17,6) Villafranca

Eliza atze aldetik ikusiko dugu, mendebalderantz jarraituko dugu Argandoñara eramango gaituen legarrezko bide tinko batetatik.

(km 18,7) Argandoña

Santa Kolumba eliza erromanikoa nagusi den herri txikia da. Hau utzita, Mendiluz bidean sartuko gara, zati honek Arabako lautadaren izugarritzko bistak ditu eta urrunean Gasteiz ikusi daiteke. Gasteizera iritsi baino lehenago bi herritatik pasatuko gara.

(km 20,1) Askartza

Herria eta A-2130 errepidea zeharkatuko ditugu, Salvador Gasteizeko kanposantu berria ikusten dugunean bide lasai batetan sartuko gara. Honen hasieran aeromodelismoa egiteko dagoen pista bat ikusiko dugu eta hau pasatu eta gero Arkaiara eramango gaituen bidera aterako gara.

(km 22,5) Arkaia

Eliza eta eraberritutako etxetzar (pelegrinen aterpetxea) baten aurretik pasatuko gara. Herria utzi eta "Alto de las Neveras" gailurrera eramaten duen aldapatxoia igoko dugu, gero jaitsi eta Gasteizera abiatzeko.

(km 27,4) Vitoria-Gasteiz

Andra Mari Zuriaren plazatik Erdi Aroko hirigunera eta Santa Maria katedralera igoko gara "Almendra mediebala"ren ekialdetik gero mendebalderantz bueltatzeko.



GASTEIZ

Mendixka ganean Antso IV.ak 1181. Urtean Nueva Vitoria izenarekin sortua, gaur egun hirigune historikoak, oso osorik mantentzen du gotiko guztia.

Andre Mari Zuriaren plaza begiratoki tradizionalak dituzten etxe inguratuta dago eta bertan bat egiten dute, hirigune historikoko eta zabalguneko kaleek.

"Arquillos" izeneko arkupe berritzailea XVIII. mende bukaeran Justo Antonio de Olaguibekek, hiriaren Erdi Aroko zatia eta zabaltze neoklasikoaren artean zegoen maila desberdintasuna txikiagotzeko eraiki zuen. XIII-XIV. mendeetako **San Pedro Apostoluaren** eliza eta **San Miguel Arcangel** eta **San Bizente Martiri** bezalako eliza gotikoetan Santiagoko bidea adierazita agertzen da.

Santa Maria Katedralak estilo gotikoa du eta XIV. mendean eraiki zen aurretik zegoen eraikin baten gainean. XVII. mendeko dorre dotore bat eta harrizko eskultura polikromatu interesgarriak dituen arkupea ditu. Gaur egun, gidatutako bisitaldiak egiten dira berriztapen lanetara.

Andre Maria sortzez Garbiaren Katedral neogotikoa XX. mendean eraiki zen eta bertan Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa aurkitzen da. Eraikin zibil garrantzitsuak ditu **Gordoi etxea** bezala. Estilo gotiko berantiarra du eta XV. mendean eraiki zen. Barruan XIII. mendeko Erdi Aroko dorre bat kontserbatzen du. Portaloa XV. mendeko egur eta adreiluz egindako eraikuntza da. **Eskoriatza-Eskibel**, Bendaña,

Villasuso edo Montehermoso **jauregiak** ere aipatzekoak dira. Ajuria-Enea jauregia Lehendakariaren bizileku ofiziala da. 1918. mendean eraiki zen eta garaiko arkitektura euskaldunaren adibidea da. Augusti jauregian **Arte Ederren Museoa** aurkitzen da. **Natur Zientzien museoa** Otxanda Andrearen Dorrea, Erdi Aroko dorrean kokatzen da eta Arkeologia Museoa XVI. mendeko etxe batetan dago. Fournier Karta Museoaren egoitza Bendaña jauregia da eta munduko karta bilduma garrantzitsuenetarikoa bat aurkitzen da bertan. **"Artium" Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak** XX. mendetik gaur egunera egin diren euskal eta Espainiako artearen aukeraketa esanguratsua du erakusgai.

ARMENTIA

1087. urtera arte lehenago apezpikutzaren egoitza izan zen eta bertan **San Prudentzio basilika** kokatzen da. XII. mendean lehenago zegoen tenplu baten gainean eraikia eta XVIII. mendean eraberritua, euskal erromanikoaren bitxi bat da. Barruan Arabako zaindariaren irudia, bataiarri gotiko bat eta harrizko sagrario gotiko-flamenko bat ditu. Arkumean antzinako hornikuntza erromatarra kontserbatzen da (tinpanoak, zutabeak, Deikundearen erliebeak eta Kristoren bizitzako irudiak)

GOMETXA

Santiago apostoluari dedikatutako antzinako ermita baten gainean **Jaungoikoaren**

Antzaldaketa eliza aurkitzen da. Erdi Aroko jatorria du eta harburu leunak eta bataiarria kontserbatzen ditu.

ARINIZ

Gaztelako Pedro I. eta bere anaia Trastamarako Enrikeren tropen artean egon zen guda bitxiaren eszenatokia izan zen. Gaur **San Julian eta Santa Basilisa elizaren** dorrea nabarmentzen da. Goi Erdi Aroan jaiera handia zegoen hauekiko.

ARABAKO SUBILANA


San Esteban parroki elizak XV. mendeko portada eta kanpai-horma berezia ditu. **Simon de Anda Salazar jauretxea**, marinel ospetsuaren jaiotza lekua da.

BILLA OKA

Vitoria-Gasteiz Dorre baten ondoan eta mendixka harritsu baten gainean kokatuta **San Pedro parroki eliza** aurkitzen da, portada erromanikoa eta hiru bao dituen kanpai-horma ditu.



Alde Zaharra (Vitoria-Gasteiz)



San Miguel Eliza (Vitoria-Gasteiz)




San Prudentio Basilika (Armentia)



Antzaldaketa Eliza (Gometxa)



Andre Mari Zuriaren plaza Gasteizeko leku ezagunetarikoa da.



BTT Txirrindulariak

Etaparen ibilbideak zailtasuna erakusten du zati txiki batetan: Arabako Subilana utzi eta Billa Okarako jaitsieran San Migel atakatik. Zailtasu hau saihesteko beste aukera Arabako Subilana autobidetik jaitea eta Argontzoneraino bertatik jarraitzea da.

(km 106,3 Saiatz) (km 102,6 Oria)



(km 155,7 Saiatz) (km 152 Oria)

(km 0) Vitoria-Gasteiz

Hiria hegoaldeko inguratuko dugu Mendizorrotza Kirol gunera eta igerilekua eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituen "Estadio S.D" kirol konplexua iritsi are. Bertatik Armentia jarraituko dugu.

(km 2,7) Armentia

Herri txiki honen sarrera gisa San Prudentzio, Arabako zaindariaren omenez egindako estatua dago. Hemendik multzo historiko-artistiko ikusgarria den Basilikaraino jarraituko dugu. Herriaren irteera Armentia Basotik egingo dugu eta bertatik aberastasun ekologiko handia duen eszenatoki batetara sartuko gara. Bideak zuhaitz ugari dituen zatiak eta irekiagoak dituen zatiak ditu. Zaindutako bidezidorrak eta atsedenaldirako gunak ederrak ditu. Ibilbidearen hegoaldean dagoen argiguneetako bat da eta hiriaren panoramika ederrekin gozatu dezakegu Gometxara eramango gaituen ibilbide polit bat jarraituz.

(km 6,9) Gometxa

Herrira iparraldetik sartu eta hego-ekialdeko utziko dugu. Eliza pasatu eta gero legarrezko landabide tinko eta erregular batetan sartuko gara eta igoera txikien artean aldapa alderantzizkatzen da zenbait zatitan. A-4102 errepidearen bidegurutza iristerakoan, zeharkatu eta mendebalderantz jarraituko dugu baina lehenengo behatoki zoragarri honetan geldituko gara eskaintzen zaigun panoramika ederrez gozatu ahal izateko. Mendebaldean, lautada, poliki-poliki itxi egiten da. Iparraldean ibilbide historiko handia duten herri txikien multzoa agertzen zaigu. Kontrol dorrea eta Foronda aireportuko pista zuzenak ikus daitezke. Iparraldean eta ekialdean, arkitektura desberdinez osatutako Jundiz industrialdea dago, 1813. urtean Espainia eta Ingalaterrako tropak alde batetik eta frantsesak kontrako bandoan parte hartu zuen Gasteizko bataila eman zen eremua okupatuz. Bertatik Gasteiz ikus daiteke eta Erdi Aroko hirigune historikoan dauden lau elizen dorreak nabarmendu daitezke, urrunean Gipuzkoatik Arabara igoazeko pasatu dugun Altzaniako mendiak ikus daitezke. Nekazal zelaietatik pasatuko gara Arabako Subilana iritsi arte.

(km 11,6) Arabako Subilana

Herri hau hegalean zehar zabaltzen da, bertatik puntu altuenetik irtengo gara, Simon de Ananda Salazar jauretxea eta indarberri eta bidea jarraitzeko parean dagoen iturri bat kokatzen diren puntutik hain zuzen ere. Aldapa handia eta harri askez osatutako bidea duen lehenengo zatia ondoen bidea poliki-poliki erraztu egiten da. Hemen, pinudi artera sartu baino lehenago bista eder batzuek gozatzeko aukera eskaintzen zaigu. Ondoren San Migel atakara igoko gara (13,1 km) eta ondoren Billa Okan amaitzen den jaitsiera hasiko dugu.

(km 16,5) Billa Oka

Bailararen bukaera kokatuta, herri hau zeharkatuko dugu etaparen amaierara eramango gaituen errepide zatitik jarraitzeko.

(km 22) Argantzun

Herri hau Trebiñuko konderrinari (Burgos) dagokio. Hirigune historiko interesgarri honek Zadorra ibai gaineko zubia, antzinako Ospitalea eta Andre Maria Zaharraren ermita kontserbatzen ditu. Armarriak dituzten etxeek herriaren iragan ospetsuaren eredu dira.



ETAPA

7^A

ARGANTZON BRIÑAS

(27 km)



ARGANTZON

Trebiñuko Konderriaren barruan dagoen harresiz inguratutako hiribildua da. Garrantzi estrategiko handia izan zuen bidegurutze puntua zelako. Forua 1191. urtean lortu zuen.

Jasokundeko Andre Mariaren eliza eraikin gotiko ikusgarria da. Bi portada eta XVI. mende erdialdeko erretaula nagusi platereskoa nabarmentzen dira. Hau Espainiako platereskoaren multzo garrantzitsuenetariko bat da. Ama Birjinaren bizitza deskribatzen duen ikonografia aberatsa aipatzekoa da eta XIV. mendeko **Antiguako Andre Mariaren** irudi bat ere kontserbatzen du.

San Juan, pelegrinen ospitaleak eta **Antiguako Andre Mariaren ermitak** hiribilduko irteera osatzen dute. Multzo hau XVI. mendean eraiki zen. Ospitaleak Erdi Aroko jatorria du eta 1950. urtera arte iraun zuen. Ermitak harrizko fatxada, erdi puntuko arku eta bi gorputzetako kanpai-horma ditu.

BURGETA

Nukleo hau Bidearen inguruan antolatzen da goragune batetan. **San Martin eliza**, behin baino gehiagotan eraberritu dute eta XIII. mendeko portada du puntadun arkuekin eta oso hornituta dauden kapitelenekin. Eraikinaren beste zatiak XVII. mendekoak dira, barroko estilokoak.

ESTABIELLO

Bere hiri-egitura goragune batean kokatzen da eta San Martin eliza dago puntu altuenean. XV. mendeko portada arku karpanel batekin bukatzen da. Tinpanoan Deikundearen erliebe bat du eta goiko aldean San Martinen irudi bat. Barruan XVI. mendeko Kontzepzioaren kapera eta erretaula nagusi errenazentista bat kontserbatzen ditu.

BERANTEVILLA

Armarriak dituzten etxeak nabarmentzen dira, **Jasokundearen Andre Mariaren eliza** handia esaterako. Harridun kupuladun dorre liraina eta erretaula barroko ederrak ditu barruan. Heritik oso gertu, Ayuda ibaiak Zadorra ibaiarekin bat egiten duen bokalaren ondoan **Lacorzanilla Andre Mariaren ermita** aurkitzen da. Goragune honetan Portilla gotorlekua aurkitzen da. Erdi Aroan eraiki zuten eta leku oso garrantzitsua izan zen Arabako lurren babesari dagokionez.

ZAMBRANA

Herri honek herri-bide ibilbidea ardatz bezala kale nagusi bat duelarik kontserbatzen du. Pelegrin eta bidaiariak pasatzen ziren eta merkatal gune garrantzitsua zen. **Guruztoki** interesgarri bat dauka "bide zaharraren" mendebaldean. Harriz eraikita dago eta estilo

errenazentista dauka, erdian aurkitzen den gurutzea bezala. **Santa Luzia parroki elizak** hondakin erromanikoak kontserbatzen ditu. Bi arkudun arkupea eta XVIII. mendeko erretaula ere baditu.

BURADON GATZAGA

Sarrera atea nabarmentzen diren **Erdi Aroko harresien** zati handi bat kontserbatzen du hiribildu honek. Hirigunean, gotorlekuak diren XV. mendeko **Sarmientos eta Aiala dorreak** aurkitzen dira. Hiria XVI- XVII. mendeko **Oñatiko Konteen jauregiaren** hondakinekin inguratuta dago. Harresi barruan XVI. mendeko **pelegrinen Santa Ana ospitalea** eta fatxadetan armarrak, balkoiak eta tailatutako hegalak dituzten etxetzarrak nabarmendu daitezke. XVI. mendeko **Sorkundearen Andre Mariaren elizak** Guevarako Gizonen bi eskultura plateresko ditu eta Arabako XVI. mendeko hileta obra politenak direla esaten da.

Argantzón



Lacorzanilla Andre Mariaren Ermita (Berantevilla)



Buradon Gatzaga




San Martín Eliza (Estabiello)





Buradon Gatzaga Toloño mendiaren magalean aurkitzen da. Herriak Erdi Aroko harresiaren zati handi bat kontserbatzen du.



BTT Txirrindulariak

Etapa honek Buradon Gatzagatik Briñasera dioan tartean ezik ez du inolako zailtasunik. Zailtasun hau bi zatitan aurkitzen da bereziki: Buradon Gatzagako irteeran dagoen igoera laburrean eta Loberako mendixkatik jaisteko dagoen maldan. Alternatiba bezala Buradon Gatzagara iritsitakoan, errepide nazionaletik jaitsi gaitzeko Conchas de Haroraino eta bertatik Briñasera zuzendu.

(km 155,7 Saiatz) (km 152 Oria)



(km 182,7 Saiatz) (km 179,0 Oria)

(km 0) Arganzon

Trebiñuko Konderriko herri honen irteerara zuzenduko gara eta ospitale zaharra eta ermita pasatu eta gero N-1 errepidearen antzinako ibilbidean sartuko gara, pixka bat aurrerago hau utzi eta Burgetara eramango gaituen bidea hartuko dugu.

(km 4,2) Burgeta

Herria ipar aldetik hegoaldera zeharkatuko dugu eta eliza parean gutxi gora behera lursailez inguratutako bide bat hartuko dugu mendebalderantz. Etxez inguratutako igoera lasai batetatik Zadorra ibaiko ibarrak eta horizontean Pancorbo eta Cellorigoko gailurrak ikus ahal izango diren bide-gurutze batetara iritsiko gara. "Erromatarren" edo "pelegrinen" bide zaharretik jaitsita iturri zahar bat eta garbitoki batekin egingo dugu topa, Estabiellora iritsi baino lehenago.

(km 6,4) Estabiello

Herri hau inguratu eta autobideko bidesari ondotik pasatuko gara. Lacervillara eramango gaituzten bi bide zeharkatuko ditugu eta aldapa gora handi eta motz batetatik Lezanara igoko gara, behin gailurrera iritsitakoan aldaparen norabidea aldatu eta topografia berri bat ikusiko dugu Ayuda ibaia dagoen bailarara iritsi arte. Erreka zubi polit batetatik gurutzatuz Berantevillara iritsiko gara.

(km 10) Berantevilla

Bidea ez da hirigunea sartzen, hau inguratu egiten du. Kanposantu aurretik aldapa txiki batetatik landabide bat hartu eta hurrengo bailarara zuzenduko gara, aurretik gure begiradarekin harresitutako Portilla gotorleku harritsuak hartzen duen puntu hurbilgaitza behatzeko. Miranda de Ebroko lurrek Pankorboko mendikatearekin egiten dute muga mendebaldetik. Muinoaren gailurrera iritsitakoan Eboraino iristen diren Zambranako lurretan murgilduko gara.

(km 13,2) Zambrana

Kanposantutik pasatu beharra dago Santa Luzia parroki elizara iritsi eta ondoren, hegoekialdetik, herritik irteteko. Atzean gurutzadura xume bat utzi eta lur emankorren artean ibili eta gero del Rio bentako hondakinetera iritsiko gara, gero Gasteizetik Logroñora Harotik pasatuz dioan N-124 errepidera irteteko. Bertatik denbora labur batez ibiliko gara eta igeltsutegi bat pasatu eta gero errepidetik irtengo gara. Bidea inguratzen duten etxeetan, mahastien monolaborantza egiten dela ikus daiteke eta honek ekonomia berrikuntza adierazten digu. Errioxan sartzen ari garela esan nahi du horrek eta Errioxa Arabarreko lehenengo herria den Buradon Gatzagan sartuko gara.

(km 21,5) Buradon Gatzaga

Bideak, harresiekin ondo babestuta dagoen herriaren hirigunea saihesten du. Kanposantura eramango gaituen bideak jarraituko dugu. Hemendik "la Lobera" Conchas de Haroko pasabidea saihesten duen antzinako ibilbidea joango gara. Harri askeak dituen bide batetatik malda bat igotzen hasiko gara. Poliki-poliki bidea xuabeagoa bihurtzen da eta ur ponpaketarako erabiltzen diren bi etxez inguratuta dagoen Lobera mendatera iritsi arte bertatik jarraituko dugu. Bertan mahastiz betetako lurren panoramika eder batez gozatzeko aukera izango dugu. Ondoren harri askeak dituen bide batetatik aldatz behera gogor bat pasatuko dugu. Ondoren bideak ibilbide horizontal erraz bat jarraitzen du Briñasera iritsi arte. Pikota elementu arkitektoniko eta jurdikuzional ederretik pasatuko gara. Hau Euskal Herria eta Errioxa erkidegoen banaketa puntuan aurkitzen da.

(km 27) Briñas

Herri honetatik Frantses Bidea hartu dezakegu 24 km egin ondoren Galtzadako Santo Domingora iristeko.



ETAPA 7^B

ARGANTZON MIRANDA DE EBRO

(16,5 km)

ARGANTZON

Trebiñuko Konderriaren barruan dagoen harresiz inguratutako hiribildua. Garrantzi estrategiko handia izan zuen, bidegurutze puntua zelako. 1191. urtean lortu zuen Forua.

Jasokundeko eliza-gotorlekua, Arabako gotikoaren erakuslea da. Ateetan Ama Birjinaren irudiak eta Aldare Nagusi plateresko oso baliagarria ditu. **Antiguako Andra Mariren** irudia gurtzen da bertan. Estilo erromanikoa du eta **San Juan Ebanjelista** pelegriaren ospitale zaharraren ondoan dagoen izen bera duen ermitatik dator.

BURGETA

Trebiñuko herriko auzo bat da. **San Martik parroki eliza** garai desberdinetan eraberritua izan den eraikina da. XIII. mendeko arkupea, erretaula barrokoa eta hiru arkudun kanpai-horma ditu.

ESTABIELLO

Hirigunetik, **lehengo galtzada erromatarren** ibilbidea jarraitzen duen Santiagoko Bidea igarotzen da. **San Martin parroki eliza** inguruan multzokatzen diren, apaingarri interesgarriak dituzten harrizko etxeak ditu. Elizak estilo gotikoa du. XV. mendeko portada interesgarria eta Jasokundeko erliebe eder bat ditu. Antzina ospitalea eduki zuen eta oraindik ere kontserbatzen da San Roke ermita.

ARMIÑÓN

Lautadako lurretara doazen ibiltari eta pelegriek pasatu beharreko lekua. Zadorra ibaia harrizko Erdi Aroko zubi batetatik zeharkatzen du. Zubiak sei begi eta bost tajamare ditu. Historian zehar borroka leku izan zen Mirandara eta Errioxara zihoazen bideak elkartzen ziren lekua baitzen.

San Andres Apostoluaren elizak XVI. mendeko portada errenazentista du. Barruan XVIII. mendekoa den Aldare Nagusia bezalako bi obra barroko kontserbatzen dira. Herriko eraikuntza esanguratsuen **Montoya-Urbina Jauregia** da. XVII. mendeko etxe-arkitekturako ezaugarriak ditu. Fatxada nagusian harrizko bost arkudun arkupe gainean, balkoi korritu bat du. Aldeetan jaunen armarriak ikus daitezke.

RIVABELLOSA

Herri honetan onartu zen 1463. urtean, mendeetan zehar Araban indarrean egon ziren Lege eta Ordenantza Koadernoak. **Rosario Andre Mariaren parroki eliza** XVI- XVII. mendeetakoa da. Kanpandorre neoklasikoa eta XVI. mendean egindako Rosario Andre Mariaren irudia duen Erretaula Nagusia du. Hirigunetik **Saenz de Santamaria jauregi** errenazentista nabarmen da. Erabilitako materialak sileria eta harria izan ziren.

Dorrea oso deigarria da eraikinaren horizontaltasunarekin apurtzen laguntzen duelako. Bigarren solairuan "Credo in unum Deum" hitzak dituen armazainak binaka banatutako puntu erdiko lau arkuko galeria eder bat ikus daiteke. Nukleoaren kanpo aldean kokatzen den San Juan eta Santa Magdalena ermita, herriko parrokiak izan zen XVII. mendera arte. Aurreko eraikin baten elementuak berriz erabili izan diren eraikuntza gotikoa baten aurrean gaude. Ospitale zaharraren berri XVI. mendetik daukagu. Fabrika kontserbatuz berreraiki zen eta etxebizitza partikular batean bihurtu zuten. Hiribildutik irten eta Bayas ibaia inguratuz, lau begitako **zubi** bat aurkituko dugu. Hau 1628an zaharberritu zuten, beraz jatorriz zaharragoa dela dakigu.



Argantzón



San Andrés Apostoluaren Eliza (Armiñón)




Rosario Andre Mariaren Eliza (Rivabellosa)

Bayas ibaiaren gaineko zubia (Rivabellosa)
